

## **2013-12-23ko OHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko abenduaren hogeita hiruan, arratsaldeko 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Tomas Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez den BILDU udal-taldeko zinegotzia: Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez den EAJ/PNV udal-taldeko zinegotzia: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

**UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2013-11-26).**

2013ko azaroaren 26ko ohizko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

### **BIGARREN GAIA**

**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 204. zenbakitik 219. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN GAIA**

**13-12-10ko 214/13 ALKATE-DEKRETUA (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIRA DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO) BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.-** 13-12-10ko 214/13 Alkate-dekretu honen berri eman da:

“2013ko azaroaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da xedapen hau: 2013ko azaroaren 19ko 40/2013 Foru Dekretua, Gipuzkoako udalei laguntzeko programaren kudeaketa baldintzak arautzen dituen, tokiko ekonomiak dinamizatzeko tokiko inbertsioak bultzatzeko Planaren barruan.

Hori ikusita, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

- 1.- 65.000 euroko diru-laguntza eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari, udal inbertsio hauek egiteko:
  - Kirol Ekipamendua -Skate Parkea Iruran. Aurrekontua: 38.500 euro.
  - Kirol Ekipamendua -Rokodromoa Iruran. Aurrekontua: 13.500 euro.
  - Plazako Eskolako Eraikinaren Teilatuaren Konponketa. Aurrekontua: 13.000 euro.

2.- Eskaera hau izapidetzeko erantzukizuneko adierazpen hau egiten dut: Irurako Udalak egunean eta beteta dauzkala zerga obligazioak, eta baita Gizarte Segurantzakoak ere.”

Udalbatzak aho batez ERABAKI du dekretua berrestea.

## **LAUGARREN GAIA**

**TOLOSALDEKO LURRALDE PLAN PARTZIALARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du 2013ko urriaren 15ean onartzea Tolosaldeko Lurralde Plan Partziala. Ildo horretatik, Udal honek, dagokion epean, aukera dauka egoki deritzon ohar eta iradokizunak aurkezteko.

Alegazio hau aurkeztu du Udalak: Villabona-Anoetako etorkizuneko garapena lortzeko bi zubi berri egitea desegokia deritzo, betiere trafikoaren irtenbideari dagokionez, kalte egingo liokeelako Irurako udalerriri.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez ERABAKI du alegazioa berrestea.

## **BOSGARREN GAIA**

**2014KO EKITALDIRAKO AURREKONTUA PRESTATZEKO IRIZPIDEAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkari kontu-hartzaileak aurkeztu du Udaleko 2013. ekitaldi ekonomikoaren likidazioaren zirriborroa eta, horren arabera, 2014. ekitaldiko Aurrekontuaren zirriborroa.

Datu ekonomikoak eta hasierako inbertsioak komentatu dira, eta idazkari kontu-hartzaileari agindu zaio 2013. ekitaldiko Aurrekontuaren zirriborroa amaitzea.

### **SEIGARREN GAIA**

#### **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA 2013-2017, ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

UEMAkin batera, Irurako Udalaren euskara sailak diagnostikoa egin ondoren eta egungo egoeraz jabetu ondoren, Irurako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana V. Plangintzaldia (2013-2017) osatu du. 5 urterako Erabilera Plana izango da eta bere helburu nagusia izango da Udalean euskararen erabilera indartzea era areagotzea, euskararen erabilera bermatzea eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izatea.

Euskara Batzorde Informatiboak 2013ko abenduaren 10ean egindako bileran aldeko erabakia hartu du.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere txostenean hau dio: egoki deritzo Irurako Udalak egin duen proposamenari.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez ERABAKI du plana onartzea eta burutzea.

### **ZAZPIGARREN GAIA**

#### **“EGUBERRIAK 2013” EGITASMOKO EKINTZEN AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

“EGUBERRIAK 2013” egitasmoko egutegia eta aurrekontua aurkeztu dira (4.000 euro).

Kultura Batzorde Informatiboak 2013ko urriaren 22an egindako bileran aldeko proposamena egin du.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez ERABAKI du aurrekontua onartzea.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Irurako Udalaren eta Gipuzkoako Euskal Federazioaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena aurkeztu da. Helburua hau da: udal pilota

instalazioak uztea Pilota Federazioak erabil ditzan, eta bere betebeharrak eta konpentsazioak zehaztea. Hitzarmena 2013/2014 denboraldirako egingo da.

Hori ikusita, Udalbatzak erabaki hau hartu du aho batez:

#### ERABAKIA

1.-Aipatu den hitzarmena onartzea.

2.-Gorka Murua Makuso zinegotzia izendatzea hitzarmena Irurako Udalaren izenean sinatzeko.

#### BEDERATZIGARREN GAIA

#### **2013RAKO EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Euskal Fondoaren kide denez, Udalak 2013. ekitaldirako diru-laguntza hauek nahi ditu erabaki:

#### ERABAKIA

1.-Proiektu hauei laguntzea:

-Hiriguneko herritarrek edan dezaten, herria urez hornitzeko sistema eraikitzea, Chahal - Alta Verapaz (Guatemala): 1.200 euro.

-Edateko ur-hornidurako sarearen oinarrizko saneamendua eraikitzea El Papayan komunitatean. Cuscatzan (El Salvador ): 1.200 euro.

2.-Diru-laguntza hori ordaintzea.

#### HAMARGARREN GAIA

#### **“TOLOSALDEA SAHARAREKIN” MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da: “Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideak gara. Dakizuen moduan gure helburua Saharar Herriarekiko elkartasuna lortzea da. Horrela, bide horretatik, gure zeregina saharar errefuxiatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramatea da. Horretarako, bide eta era ezberdinak ditugu eta, garai honetan, produktu mota ezberdinen bilketa da gure lana.

Horretarako, behar-beharrezkoa dugu zuen laguntza, zuen udalerrietan gure lanaren berri eman dezazuen eta, horrela, toki bakoitzean ahal den elikagai kopuru gehiena bildu dadin.

Horretarako, zuen herritarrei, zuen ohiko bideak jarraituz, kanpainaren hasieraz informatzea eskatzen dizuegu eta, bide batez, bertan bildu beharreko elikagaiak ere azaltzea eskatzen dizuegu: lekaleak, hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, olioak, konpresak eta helduentzako pixoihalak.

Bestalde, elkarteak esku artean zuen proiektua, hau da, Saharar lurralde askatuetakoa Midyic izeneko herrian eskola bat eraikitzeko lanak amaitu egin dira, eta dagoeneko 3 gela daude eraikita. Bertan, 120 ikasle dabilta bere ikasketak egiten, eta hauen beharrak bete nahi ditugu eskolako materiala eskatuz (koadernoak, arkatzak, ezeztekoak, txorroskiloak...).

Bilketa honek urtarrilaren 31ra arte iraungo du, elkarteko kideek, ondoren, gure denbora behar baitugu kontaketa lanak egin ahal izateko, zeren kamioi-karabana otsailean aterako baita Sahararantz. Tarte horretan, zuen erabakia izango da data zehaztea zuen udaletxetan bilketa egiteko. Bukatu ondoren, gurekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu, bildutakoa jasotzeko.

Kamioien gaia aipatuz, bildutako elikagai eta eskolarako material guztiak Saharar errefuxiatuen kanpamentuetara helarazteko bigarren eskuko kamioiak erosten dira. Horrela, diruz lagundu nahi duzuenok kontu korrante honetan egin ditzakezue ekarpenak:

Kutxabank 2095 5081 93 1062503346

Udalbatzak aho batez ERABAKI du hau onartzea.

### **HAMAHIKAGARREN GAIA**

#### **EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEAREN ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Mozio hau aurkeztu da:

“ERAKUNDE ADIERAZPENA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILARI, EUSKO LEGEBILTZARRAK AHO BATEZ 2013KO OTSAILAREN 28AN ONARTUTAKO TRANSAKZIO-ZUZENKETA BETETZEA ESKATUZ.

Musika eskolak, heziketa sistematiko eta egonkor baten bidez, bai ume, gazte zein nagusien heziketarako, funtsezko osagarria edo hobekuntza eskaintzen dituzten hezkuntza-zentroak dira. Hauen helbururik nagusia zaleen heziketa eta instrumentu eta ahots-taldeen sustapena da, nahi duten pertsona guztiak musika-praktikan has daitezen eta, sentikortasun eta adiera estetikoaren garapena arte-hezkuntzaren atala bezala.

Guztion hezkuntzan ezinbesteko lana betetzen dute, haien plan pedagogikoaren barruan adin, gaitasun eta musika-estilo guztietara egokitutako heziketa-eskaintzak egiten dituzte, eta gure herriaren historia eta musika-ondarearen ezagutza eta zabalkuntzarako gune ere bihurtu dira. Eskolek gizartearekin duten konpromisoa aitortu behar dugu, baita gure udalerriek, horiek mantentzeko egiten duten lana ere, Musika Eskolen

garapenean laguntzen baitute, etorkizunari begira hezkuntza eta kultura arloko proposamen bezala balioa emanaz.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasotzen zuen bezala, Musika Eskolak Euskadiko arte-hezkuntzaren erreferentziarik garrantzitsuenak izan dira eta dira, beren ohiko ezarpenetatik, ekintza honek gizartean sortarazi duen erakargarritasunetatik eta, bereziki, toki-administrazioek (udalek) izan duten parte-hartzeetatik. Daukaten garrantzi sozialarekin (35.000 ikasle baino gehiago) eta udalen ahaleginekin bat etortzeko, Hezkuntza Sailak bere plangintza eta finantzaketan arreta eta baliabide bereziak eskaini dizkie.

Ildo honetan, 2006ko urriaren 11n, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura-batzordeak, aho batez legezkoa ez den proposamen bat onartu zuen. Bertan hurrengoa proposatzen zen:

“Bat. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Euskal Autonomia Erkidegoan musika eskolei buruzko ikerketa orokorra martxan jartzeko, koordinatzeko eta, kasua bada, idazteko eskatzen dio.

Bi. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, European eredu egokia bezala ezarrita dagoen %33ko finantzaketa bost urteko epean lortzeko asmotan, musika eskolen diru-laguntzetarako (hauen finantzaketan toki-administrazioak parte hartzen dute) aurrekontuzuzkidura, mailaz maila, urte anitzeko plan batean handiagotzea eskatzen dio.

Hiru. Nolanahi ere, Sail honek oraingo aurrekontuetan onartuta eta ekitaldiaren amaieran burutu barik egon litekeen gastuaren atala musika eskolei zuzentzen den kontu-saila handiagotzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.”

Halaber, 2013ko otsailaren 28an, Legebiltzarrak aho batez hurrengo legezkoa ez den proposamena onartu zuen:

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio musika eskolentzat zehaztu gabeko epean %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, mailaz maila erabilgarri diren baliabideen esparruan aurreratzeko, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin, bere jardueraren hobekuntza eta eguneratzean lan egitea, musika-hezkuntzako arloaren sendotzea lortzeko asmotan.”

Azken urte hauetan, Sailaren aldetik musika eskolen finantzaketak ia 2.500.000 €-ko jaitsiera garrantzitsua jasan du. Kasu gehienetan, toki-administrazioek bereganatu dute jaitsiera hau. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak

emandako finantzaketa %14koa da soilik, hasieratik guztiok defendatutako europar eredutik oso urrun.

Horregatik guztietatik, Irurako taldeak, Udal Batzarrari hurrengo erakunde-adierazpena aurkezten dio:

### ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Irurako Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza-plana ezartzea eskatzen dio.”

Udalbatzak aho batez ERABAKI du hori onartzea.

### HAMABIGARREN GAIA

**SEVILLA IIKO ETXERAT-EN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

**MOZIOA, Irurako UDALAREN OSOKO BILKURARI AURKEZTUA**

### ZIOEN AZALPENA

Ettxerat, euskal preso politikoen senideen elkarte den heinean, behin eta berriz salatu du sakabanaketa politika. Sakabanaketak, euskal presoak euren ingurune sozial, kultural eta afektibotik ehunaka kilometroetara egoteaz gain, bestelako egoerak errazten dituen markoa osatzen duelako: erasoak, isolamendua eta, espetxeraturik dauden pertsoneri eragiteaz gain, guri ere, euren senide eta lagunoi eragiten diguten bestelako eskubideen urraketak.

Gure Elkarteak azkeneko bi urteetan espetxeetan ematen ari den tentsionamenduaren areagotzea eta espetxeko bizi-baldintzen okertzea salatu du, ETAREN jardueraren bukaeraren berriarekin kointziditu izan duena. Oso kezagarritzat eta larritzat jotzen dugu egoera hau, bai gure senideei eragiten dien heinean, baita jokaera honek azalerazten dituen interes politikoengatik.

Marko honetan kokatzen dugu Sevilla II-ko espetxeko kasu zehatza, bertan espetxeratuak dauden gure senideak mugagabeko gose greba batera behartu dituen. Gose greba hau, zein espetxean egiten den beste edozein, ulergaitza da, ez bada presoek euren burua behartua ikusi dutelako

muturreko egoera batean, non aurre egiten saiatzen ari diren arazoan aurrean, bestelako konponbideak erabat agortuak daudenean.

Sevilla II-ko espetxeko kasuan, duela lau urtetatik hona luzatzen den tentsionamendu baten ondorioz dator. Egoeraren larritasuna handitzearen harira espetxe zuzendaritzarekin izandako elkarrizketa eta saiakerek, egoera bera luzatzea besterik ez dute lortu, konponbiderako inongo aurreikuspenik gabe.

Haien aldarrikapenak eskubide oinarrizkoenetan oinarritzen dira, berezkoak dituzten eskubide batzuk, baldintzetara edo ordainetara lotu ezinekoa. Espetxea da hain zuzen ere haien segurtasuna, haien osotasun fisikoa, haien osasuna eta dagozkien eskubideak zaindu behar dituen; beraz, erabateko ardura du eskubideen urraketa jarraiei eta sistematikoei dagokienez.

Nahiz eta egungo legerian zein espetxe-arautegian isolamendua oso egoera zehatzetarako gordetzen den neurri bat izan (bai erregimenari dagokionez, zein zigor neurri bezala), eta mugatua izan behar duen, gure senide eta lagunei bizi-erregimen gisa aplikatzen zaie, mugagabeko iraupena duena.

Sevillako espetxean gure senideek dagoeneko lau urte daramatzate isolamenduan, inolako jarduerarako aukerarik gabe, eta salbuespenezko neurriak biziz. Bi egunetik behin, 26 ordu pasatzen dituzte jarraian ziegan.

Aipatutako guztiagatik, IRURAKO Udalbatza honi honako HITZARMEN hauekin bat egiteko eskatzen diogu:

1.- Espainiako gobernuari sakabanaketa politikaren amaiera eskatzea. Izan ere, sakabanaketak preso bere ingurune sozial, kultural eta afektibotik milaka kilometrotara urruntzeaz gain, erasoak, isolamendua eta bestelako eskubide urraketak ahalbidetzen ditu. Eskubide urraketa hauek presoeri eragiteaz gain, senide eta lagunei ere zuzenean eragiten dietelarik.

2.- Sevilla II espetxeko zuzendaritzari eta Espainiako Espetxe Erakundeetako idazkari nagusiari bertan dauden beste euskal presoek pairatzen dituzten muturreko bizi-baldintzekin amaitzeko eskatzea.

3.- Oinarrizko giza eskubideen errespetua defendatzen dugun heinean, bat egiten dugu preso eta euren senideen eskaerekin:

Mugagabeko isolamenduarekin amaitzea



Euskal preso politikoak batera egotea  
Oinarrizko eskubideak errespetatzea  
Etengabeko jazarpen eta erasoekin amaitzea

-IRURAKO Udalak herritarrei mozio honen berri eman eta giza eskubideen eta bakearen defentsan antolatzen diren dinamiketan parte hartzera gonbidatuko ditu."

Espetxe-araudiaren arabera, isolamenduan dauden bitartean medikuak bertatik egunero pasatu behar du, berez egoera honek arriskua suposatzen duelarik osasunarentzat zein osotasun fisikoarentzat, horregatik egunero izan behar du ikuskatua. Hala ere, ohikoa da 2-3 egunetan zehar, zein batzuetan asteetan zehar, medikua espetxeko isolamendu modulua ez bisitatzea, eta beraz presoek izan ditzaketen beharrei ez die erantzunik ematen, pairatzen ari diren gaixotasunetik urrun mantenduz.

Nahiz eta Espetxe Zaintzako Epaitegiek sarritan esan izan duten oreka bat mantendu behar dela segurtasun neurrien eta presoen duintasunaren artean, miaketak umilgarriak izateaz gain, oso erasokorrak izaten dira.

Erasokortasun hori xaxatzeetan eta jipoietan ere ikusi izan da.

Jarrarian agertzen ditugun gertaerak, gure Elkarteak hilero osatzen dituen txostenetan jaso izan dira, eta gure senideek Sevilla II-ko espetxean pairatzen ari direnaren isla dira:

2013ko martxoa: ziegatik irtetean egiten dizkieten miaketa gogorrek, euskal presoak patiora irten gabe salatu behar izatera eraman zituen.

Martxoak 25: euskal presoek txapeo bat egiten dute Muret Seysses espetxean Xabier Aranburu presoak bizi izandako egoera salatzeko. Egoera hau probestuz funtzionario batek Arkaitz Bellon bere ziegatik atera zuen eta ukimen bidezko miaketa bat egin zion. Paretaren kontra izan zuen, eta funtzionarioak sexu-alderdiak ukitu zizkion bortizkeriaz. Berriz ez errepikatzeko esan zionean Arkaitzek, funtzionarioa asaldatu zen. 72. artikulua aplikatu zioten bortizki lepotik helduz, eta miaketa gelara arrastaka eraman zuten ukabilkadak eta ostikoak ematen zizkieten bitartean. Miaketa gelan zeudela, buruan eta giltzurrunetan kolpatzen jarraitu zuten. Oihu artean biluzarazi zuten. Jertse gabe eta oinutsik ziega zikin eta hotz batetara eraman zuten. Gaua iritsi arte ez zioten mantarik eman.

Apirilaren 7aren eta 13aren artean, presoak ukimen bidez miatuak izan ziren patiora irteterakoan, neurri honen aurkako salaketa bat jarri zutelarik. Apirilaren 9 eta 12a bitarte, goizetan patiora irteterakoan uko egin

zieten miaketa hauek onartzeari; egoera hauek funtzionarioen jarrera agresiboak eta probokazioak jasatea eta erasoak jasatea errazten dutelako.

Uztailaren 10ean, Koldo Aparicio espetxe honetara heldu zen. Espetxera sartzerakoan dei bat egiteko eskubidea dute, baina, ez zioten utzi. Eta inongo agindu berezirik egon gabe miaketa integrala egin zioten. Uztailaren 18 eta 20 bitarte, arazo ugari egon ziren ukimenezko miaketak direla eta. Miaketa hauetan ipurdia, barrabilak eta zakila ukitu zizkieten.

Abuztuaren 18an, Asier Arzallusek ukimenezko miaketa jasan zuen berriro ere. Zerbitzu buruaren aurrean gertatutakoa salatu zuen, baina, hurrengo egunean modu berean miatu zuten.

Guk, senide eta lagunok ere espetxeetan ematen diren jazarpen egoera hauek pairatu behar izaten ditugu, izan ere, sakabanaketa politika aplikatzeaz gain bestelako eskubide urraketak ere pairatu behar izaten ditugu. Sevillako espetxeko gertakariak dira jarraian aipatzen direnak, eta senide eta lagunok zuzenean jasan behar izan ditugunak:

Txus Goikoetxearen lagunak Sevillara joan ziren Txus bisitatzera, eta espetxean zeudela, bisitarik ez zutela izango esan zieten, beraien bisita eskaera agertzen ez zelako.

2012ko abendutik, gure senide eta lagunei hilean bi publikazio (berdin du liburuak, aldizkariak edo egunkariak izatea) baino gehiago sartzea debekatzen digun araua ezarri digute. Horrek gure senide eta lagunak irakurtzeko duten aukera asko murrizten duelarik. Ezinezkoa da gauza hauei nolabaiteko justifikazioren bat aurkitzea.

Espetxe honetako funtzionarioek bisitara zihoazen senideak miatu nahi izan dituzte, bisita kristalaren atzean izanda ere.

Guzti honegatik, Sevilla II espetxean dauden gure senide eta lagunak eta, ondorioz, gure aldarrikapenak honakoak dira:

Mugagabeko isolamenduarekin amaitzea  
Euskal preso politikoak batera egotea  
Oinarrizko eskubideak errespetatzea  
Etengabeko jazarpen eta erasoekin amaitzea.”

Udalbatzak aho batez ERABAKI du hori onartzea.

**HAMAHIRUGARREN GAIA**  
**GALDE-ERREGUAK.-** Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA